

14-4-2019

ARAUDIA

XV. BERAKO MENDI MARATOI ERDIA



2019ko Araudia

MANTTALE MENDI LASTERKETA TALDEA



XV. BERAKO MENDI MARATOI ERDIA

1. ORDUA ETA DATA

Berako Mendi Maratoi Erdia 2019ko apirilaren 14ean jokatuko da. Goizeko 9:30etan hasita, irteera lekua kiroldegian izanen delarik.

2. IBILBIDEA

Bera inguratzen duten mendietatik igaroko da proba, 21 kilometroko ibilbidea osatuz, eta 2.714,60 metroko desnibel metatuarekin. Neurketak ez daude homologatuta.

3. PARTEHARTZEA

18 urtetik gorako atleta, mendizale eta kirolari guztiek dute proban parte hartzeko aukera, federatuta egon edo ez, baina gehienez ere 525 lagun onartuko dira. Arautegi honetan adierazitako guztia onartu eta zehaztutako baldintza guztiak betetzen badituzte behintzat.

4. MAILAK

(proba jokatzen den egunean duten adina)

GIZONEZKOEN MAILA

18 urte baino gehiago dutenak: Absolutuak.

44 urte baino gehiago dutenak: Beteranoak.

EMAKUMEZKOEN MAILAN

18 urte baino gehiago dutenak: Absolutuak.

40 urte baino gehiago dutenak: Beteranoak.

5. IZEN EMATEA & PARTAIDETZA

525 korrikalari gehienez. Internet bidez bakarrik egingo da www.mantale.com webgunean Martxoaren 12tik 31ra bitartean.

Datuz kanpo ez dira izen emate gehiago jasoko. Norberaren izen ematea ordaintzerakoan, hau ez zaio korrikalariari itzuliko. Aldiz, izen aldaketak onartuko dira.

6. PREZIOA

Federatuentzat 28 euroakoa izanen da eta 32 euroakoa ez federatuentzako.

Izen ematearen ordainketak eskubidea ematen du proban parte hartzera, erantzukizun zibilaren eta istripuetarako aseguruia federatua ez daudenentzat eta antolakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzera partaide guztientzat.

Proban parte hartzen duten lasterkariek bakarrik izango dute korrikalariaren poltsa eskuratzeko eskubidea edota luntx-ean eta sarien zozketan parte hartzekoa.

7. SEINALEZTAPENA

Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da, kartel adierazleekin eta ageriko balizaje-zintekin. Kilometro-erreferentziak ibilbide osoan zehar jarriko dira.

8. KONTROLAK

Probaren luze-zabalean antolakuntzak kontrol guneak jarri ditu eta bertatik pasatzea ezinbestekoa izango da, gune hauetan egingo da arauzko igarotze-kontrolak. Ibardineko gainean jarriko da tarteko Helmuga.

9. MATERIALA

Mendiko makilak lasterketan zehar erabiltzea onartuta dago. Aldiz, guztiz **DEBEKATUTA** dago makil hauek, **ANOA PUNTUETATIK KANPO** hartzea edota uztea.

MENDIKO MAKILAK HARTU EDOTA UZTEKO BAIMENDUTAKO LEKU BAKARRA, ANOA PUNTUAK IZANGO DIRA.

10. ANOA PUNTUAK

Zortzi postu atonduko dira helmugakoaz gain. Postu hauetan produktu energetiko eta freskagarriak eskainiko zaizkie parte-hartzaileei (ura, fruta, barrak, edari energetikoak, e.a.) (ikus perfilaren grafikoa).

11. IGAROTZE DENBORAK

IBILBIDEKO LAU PUNTUTAN (4,8 // 11 // 14 ETA 21 KILOMETROAK) TARTEKO DENBORA KONTROLAK EZARRIKO DITU ANTOLAKUNTZAK.

EZARRITAKO DENBORAK BETETZEN EZ DITUZTEN KORRIKALARIAK BAZTERTZEKO AHALMENA IZANGO DU. GAINERA, ERRETIRATU AHAL IZATEKO PUNTUAK EGONGO DIRA. EDONOLA ERE, ANTOLAKUNTZAKO ARDURADUNEK KORRIKALARIAK PROBATIK BAZTERTZEKO AHALMENA IZANGO DUTE ONDORENGO KASU HAUETAN: PROBAKO ARAUAK HAUSTEN DITUZTENEAN, EZARRITAKO IBILBIDEARI ZEHATZ-MEHATZ LOTZEN EZ DIRENEAN, ARAUZKO DORTSALA ONDO IKUSTEKO MODUAN EZ DARAMATENEAN, ANTOLATZAILEEK ESANDAKOARI JARAMONIK EGITEN EZ DIOTENEAN EDOTA GAINONTZEKO KORRIKALARIEKIKO KIROLTASUNEZ JOKATZEN EZ DUTENEAN.

HELBURU HORREKIN, PROBAREN AMAIERA ADIERAZIKO DUTEN BI KORRIKALARIREN PARTE-HARTZEA AURREIKUSTEN DU ANTOLAKUNTZAK.

BAZTERTUA EDO KANPORATUA DEN PARTE-HARTZAILE OROK GERTUEN DUEN KONTROL GUNEAN EMAN BEHARKO DU BERE DORTSALA ETA ANTOLATZAILEEK AGINDUTAKO MODUAN UTZI BEHARKO DU PROBA.

12. SARIAK

Sariak bateragarriak izanen dira. Hau da beterano mailan dagoen korrikalaria orotara lehenengo bosten artean sartu ezker, bi sariak jasoko lituzke, beterano mailakoa eta baita absolutu mailakoari dagokiona.

13. SAILKAPENA

Korrikalariak dortsalean itsatsita eramango dituzten txip-en bitartez kontrolatuko dira denborak.

14. DORTSALEN BANAKETA

Dortsalak lasterketaren bezperan (2019ko apirilaren 13an) 17.00etatik 19.00etara, eta egun berean Berako kiroldegian, 8.00etatik 9.00etara.

15. OSASUN LAGUNTZA

Antolakuntzak sorospen eta salbamendu-zerbitzuak atonduko ditu ibilbideko puntu estrategikoenetan. Era berean masaje-zerbitzuak, dutxak, komuna eta aparteko beharren bat duten kirolariei aurreneko laguntza emango dieten medikuak ere izango dira helmugan.

16. SEGURTASUNA

Antolakuntzak, aurretik Lasterketako Batzordearekin hala adostuz gero, proba ordezkotzat batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak hala eskatzen badu, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.

17. LAGUNTZA EZBEHARRETAN

Parte-hartzaileek betekizun izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.

18. ERANTZUKIZUNA

- 18.1) Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen korrikalarien izan dezaketen edozein istripuren ardura.
- 18.2) Federatu gabeko korrikalariak, izen-ematea ordaintzerako garaian, seguru pribatu baten babesa izango du istripuren bat gertatu ezkeror.
- 18.3) Parte-hartzaileak izanen dira beren buruei edo bestelako baten bateri sortutako kaltearen erantzule bakarrak.

- 18.4) Antolakuntzak ez du bere gain hartuko korrikalarien zabarkeriak eragindako kalterik.
- 18.5) Parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean kontsigna zerbitzu bat izango da helmugan bertan.

19. ARGAZKIAK

Antolakuntzak eskubide osoa du lasterketan zehar ateratako argazki guztiak, proba bera ezagutzera emateko erabiltzen diren hainbat hedabideetan erabiltzeko (kartelak, triptikoak, prentsa oharrak..)

20. NORBERAREN DATUAK

Lasterkari guztiek izena ematerako momentuan emandako datu guztiak erabili ahal izango ditu antolakuntzak, beti ere bakoitzak hala erabakitzen badu behintzat. Horretarako bete beharreko hainbat hutsune izango dira izen emate orrietan, derrigorrezkoak batzuk eta aukerakoak besteak.

21. INGURUGIROA

Lasterketa, bere zatirik handienera, edertasun natural handiko parajeetatik igarotzen da eta, hau horrela, ingurunea ahal beste zaintzeko eta zaborrak kontrol-guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie parte-hartzaile guztiei.

Hornitze guneetatik gertu zaborrontziak ezarriko dira. Oinarrizko arau hau betetzen ez duen korrikalari oro probatik kanpo utziko da.